

Goierri tarra

342. zenbakia 2008ko ekainak 6



ZERAIN, ESKOLA TXIKIEN HIRIBURU



ASTE BERDEA

gure jarrera aldatzen

GOIERRI 2008KO EKAINAK 9TIK 12RA

**PLANETA
BAKAR BAT**



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU BAZA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



EBK0078

Zaldibiako Arkaka Ur Interpretazio zentrua ekainaren 6tik 15era irekirik egongo da, dohainikako bisita gidatuak emango direlarik. **ORDUTEGIA: 11:00-14:00 eta 16:00-20:00**



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
6. zenbakia zure esku



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albuio

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. **Iritzia:** Rufino Iraola Garmendia.
5. **Ingurugiro txokoa:** Gure basoen garrantzia (II).
6. **Euskara txukuntzen:** Hotz asko egiten du kalean...
7. **Aholkua:** Elikadura eta psikologia.
8. **Umorea:** XVII.Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketaren irabazleak.
10. **Erreportajea:** Gipuzkoako Eskola txikien festa Zerainen.
15. **Elkarrizketa:** Tomas Salazar mendizalea.
19. **Kirola:** Berdeguneko neska futbolariak.
23. **Iragarki laburrak.**
24. **Non zer.**
26. **Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola Garmendia

*Harritu egiten
nau, adibidez,
gazteak nola ez
diren jaikitzen
zabor-kontratuen
aurka,
etxebizitzan
prezioen kontra,
bizitza osoan
hipoteka
ordaintzen
jardun
beharraren
aurka...*

Librepentsatzaileak eta ezkerren panorama

Zenbait liburu irakurtzen baduzu, eta ondoren egilearen biografia aztertzen hasi, segituan ohartzen zara horietako asko eta asko estatus eta posizio sozial oneko jendea izan dela. Hau da, herri xeheri begiak ireki dizkion librepentsatzaile asko familia oneko seme-alabak edo aristokratik izan direla. Esate baterako: Voltaire, Rousseau, Marx, Schopenhauer, Gandhi, Bevoir, Nietzsche, Ortega...

Lehen begiratuan, harrigarri samar egiten zaigu hori horrela izatea; ematen du aberatsek bakarrik dutela pentsatzeko ahal-ahala. Baina, pentsatzen jarrita, badu bere logika: maila sozial jakin batetik gorakoek bakarrik egin zitzaizkion ikasketak. Harrigarria da batzuek beren jakinduria erabiltzea sozialki antogonikoak zirenen alde. Eta horiek bultzaturiko ideia libertarioei esker sortu ziren hainbat herri-mugimendu, iraultza sozialari bide emango ziotenak, langileen baldintzak hobetzeko: soldatak, osasun-zerbitzua, hezkuntza... Dena den, pentsamendu autonomoaren jabe asko eta asko langile familietan sortuak dira: Camus, Orwel, Gramsci, Pulitzer eta konpainia.

Harriduraz asko hitz egiten ari naiz artikulu honetan, eta beste bat gehiago aipatuko dizuet: oso ondo dago AHTren kontra mugitzea eta zenbait errebindikazio politikoren alde jotzea, baina harritu egiten nau, adibidez, gazteak nola ez diren jaikitzen zabor-kontratuen aurka, etxebizitzan prezioen kontra, bizitza osoan hipoteka ordaintzen jardun beharraren aurka, administrazioaren subkontratazio-politikaren kontra, hainbat enpresa eta bankuen irabazi eskandalosoen aurka, %0,7 herri pobrentzat exijitzaeren alde, etab. Eta... sin-

dikatoen beraien kontra ere, langileen artean horrelako aldeak eta diskriminazioak onartzen dituztelako.

Bestetik, alderdi politikoei begiratutik, alegia ezkerren ikuspegitik begiratuta, pena ematen du. Ez dago inon bajuen interesak defendituko dituenik. Azkenean, debate politiko osoa honetara murrizten da: "España" ala "Euskadi", nazionalismo espainolaren eta nazionalismo euskaldunaren artean dago erabaki beharra. Nik usate dut langileoi interesatu beharko litzaigukeela beste kontraesan batzuk eta beste dialektika bat harrotzea ere. Ni nago herri honetan ez dela sekula izan benetako ezkerrik, eta orain ere ez dago. Abertzaleak bai, baina hemen ez dago ezkerreko aber-tzalerik.

Zergatik gertatzen zaigu hori? Alde batetik, ongizatearen izenean kapitalismoaren arauak onartzen ari garelako; librepentsatzailea izatea, gaur egun, komunikabide ahalguztidunen aurrean psikologikoki ezinezkoa delako; bestetik, ez dagoelako benetako ezkerreko proiektu bat lideratuko duen alderdirik. Ikusi zer-nolako emaitzak izan zituen azken hauteskundeetan, esate baterako, IU-EBk. Baina, tamalez, horren ondorioa ez da izan ezkerreko planteamenduan sakontzea, baizik eta eskuin aldera egitea. Hala dirudi, behintzat, zenbait militante errefundaziorako prestatzen ari den ponentzia irakurrita.

Panorama honekin ez naiz harritzen, nik zer dakit?, adibidez gure politiko neoliberalak eta sozialdemokratik erortzea osasun sistemaren pribatizazio eta horrelako mila tentaziotan, Kanarietan gertatzen ari den bezala. "Cuando las barbas del vecino..."



euler
bombas sumergibles

Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11

IÑAKI ARIN aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Gure basoen garrantzia (II)

Arazoari konponbidea

- ✗ Bertako landarediaren landaketaren sustapena, % 15 baino gehiagoko maldetan derrigorrezkoak izanik.
- ✗ Parke natural eta mendi publikoetan, kanpoko espezieen birpopulazioa debekatzeko, bertako espezieen alde.
- ✗ Foru Aldundiak bertako espezieen bideragarritasunari buruzko azterketak egitea.
- ✗ Kanpoko espezieen ustiapenei laguntza ekonomikoak debekatu.
- ✗ Matarrasa eta sastar erretaketak ezabatu, hautazko mozketek ordezkatuz.
- ✗ Mendiaren ustiakuntza ekonomikoa ezberdindu: zura, erretxina, fruitu, egur, larre, trufa, mikologia, erlezaintza, turismo kontrol sentibera, etab.
- ✗ Parke naturaletan, kanpoko espezieen zuhaitziak debekatu, bertakoen alde.
- ✗ Baso kanpotarren ustiakuntzarako laguntza ekonomikoak kendu, bertako espezieei eman.
- ✗ Zuratik eratorritako produktuen berrerrabilpena bultzatu.
- ✗ Prozesionariaren aurkako tratamendu erasokorrak (Dimilin) debekatu, guda biologikoa bultzatuz.



✗ Mendietan egiten diren azpiegitura ezberdinen eragina aztertu eta kontutan izan bere ezarpenarako.

✗ Basoen kontrol hobea gogor dadin basozain kopurua handitu.

PEFC

“Consejo de certificación Forestal Paneuropeo” delakoa, 1999 urtean sortu zen, sektore pribatuaren ekimen bezala sortua, baso industriaren interes gisa sustatua eta haiengandik zuzenduta. PEFCak, ingurugiro eta ekonomia interesak ez ditu berdin balioztatu. Gaur egun 18 kidek osatzen dute: Eu-

ropar Batasuneko kide guztiak (Grezia izan ezik), Suitza, Letonia, Kanada eta Estatu Batuak.

FSC

“Forest Stewardship Council” delakoa, 1993 urtean Toronton sortu zen, 130 erakunde sozial, ekologiko, indigena, zur-industria eta baso instituziotako ordezkari osotua, 25 herrietakoak. Helburua, ingurugiroarekiko sostengarria, sozialki onuragarria eta ekonomiki bideragarria den administrazioa bultzatzea da. Modu honetan, FSC, kudeaketa egokiaren ziurtagiri bikaina da.

Ekologistak Martxan

***Basoen egoera eta etorkizuna
gizakion errespetu txikiko
jarduerei esker mebatxaturik dago.
Suteak eta izurriteak faktore
aipagarriak dira.***

JAKIN BEHARREKOAK

Golf zelaiari boikota egitea eskatu die herritarrei Oiangu Bizirik taldeak: proiektuaren sozio ez egitea, instalazioak eta ostalaritza zerbitzuak ez erabiltzea.

Europar komisioko Monsanto eta Pioneerren bi arto transgeniko eta BASFren patata transgeniko ez ditu onartu. EFSA, ingelesezko siglak, elikaduraren segurtasuna bermatzen duen eta transgenikoen egokitasuna onartzen duen sistema europearra lana zaltan jarritz.

Bioterra, ekainak 6-8, Fico-coba, Irun. 5. urtez izango da produktu ekologikoen, bioerainkuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka. <http://bioterra.fico-coba.org>

Animalia basatiak babesteko fondoak 150.000 zuhaitz eta zuhaixka ezberdin landatuko ditu Belmonte de Mirandan (Asturias). Proiektu honen helburua hartz arrearren elikadura bermatzea da. Gehienak gaztainondoak, basa gereziak dira. Etorkizuna basoentzat, www.greenpeace.org eta munduko basoen egoeraren berri izateko www.fao.org

LIBURUA

"Consumir menos, vivir mejor" Toni Lodeiro, Ed. Txalaparta. Gutxiagorekin bizitzea beharrezkoa dugu mundu jasangarria eta biziteko lortzeko. Gainera gure bizitza lasaigoa, osoa eta egokia lor dezakegu. Liburua lortzeko tonicongrelos@nodo50.org.

Hotz asko egiten du kalean...

Maizpide euskaltegia

Zuzena ote dugu izenburuko esaldia? Ez, bada, lagunok! Askotan entzuten (eta esaten) badugu ere, ez da batere txukuna. 'Askok' jartzen duen lekuan 'handia' behar du, jakina! Baina... nola jakin noiz erabili bata eta noiz bestea?

Askok / gutxi


Zenbatzea edo neurtzea dugun izenekin erabiliko dugu. 'Zenbat' galderari erantzungo dio beti:

- ✓ Artxibozainak Gerra Zibileko agiri **asko** falta direla esan digu (zuzen).
- ✓ Liburu **gutxi** dute eskolako liburutegian (zuzen).

Handia / txikia, luzea / motza...

Neurtzea edo zenbatzea **ez** dugun izenekin erabiliko dugu. 'Nolakoa' galderari erantzungo dio:

- ✗ Denbora **askoan** aritu ginen berriketan (oker).
- ✓ Denbora **luzean** aritu ginen berriketan (zuzen).



Denbora luzean zer eroriko zain egon arren, gose handia izaten jarraitzen du pakitok...

- ✗ **Min asko** egin zidaten Joxeparen bitzek (oker)
- ✓ **Min bandia** egin zidaten Joxeparen bitzek (zuzen).
- ✗ **Unai txikiak aitarien antz asko** du (oker).
- ✓ **Unai txikiak aitarien antz bandia** du (zuzen).
- ✗ **Askok maite zaitut**, Pirritx (oker)
- ✓ **Oso maite zaitut**, Pirritx (zuzen).

Baina, kontuz! **Orain dela denbora asko** edo **Duela denbora asko** esan behar dugu (eta ez: **Orain dela denbora luzea** edo **Duela denbora luzea**).

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Ez daukat gose askorik, baina egarri asko daukat.
2. Hotz asko egin du maiatzean; apirilean, berriz, bero asko egin zuen.
3. Nik neuk ere ez dut gogo askorik horretan hasteko.
4. Gure irakasleak pazientzia asko du.
5. Denbora askoan egon zen gure artean.
6. Urte asko ditu Iratik; gehiegi, horrelako ume mokoekin ibiltzeko.
7. Honelako ariketak egiteak neke asko sortzen du.
8. Zornotzako Ibilaldia jende asko joan omen zen igandean.
9. Maitek berez du erraztasun asko ipuinak asmatzeko.
10. Gaur atzo baino bero gehiago egiten du.
11. Urtainek indar asko zuen.
12. Taberna honetan zarata asko dago.
13. Emakume horrek kultura asko du.
14. Beasainen Ataunen baino kutsadura gehiago dago.
15. Askok maite zaitut, Porrot! 'Ilargira eta buelta' maite zaitut!

OHARRA: 1. **gose bandirik** eta **egarri bandia** behar du; 2. **hotz bandia** eta **bero bandia**; 3. **gogo bandirik**; 4. **pazientzia bandia**; 5. **denbora luzean**; 6. zuzena da; 7. **neke bandia**; 8. zuzena da (edo: **jendetza bandia** joan zen, **jendea erruz joan zen**); 9. **erraztasun bandia**; 10. **bero bandiagoo**; 11. **indar bandia**; 12. **zarata bandia**; 13. **kultura bandia**; 14. **kutsadura bandiagoo**; 15. **oso maite zaitut!**



zahaizki
Surgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarakoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

XXI. mendeko epidemia bilakatzen ari den **gizentasuna** nahikoa ez bada ere, elikadura eta psikologiarekin lotuta dagoen beste bi gaixotasunen indizea haundia-gotuz doa: **anorexia** eta **bulimia**. Baina zertan desberdintzen dira? Eta nola detekta ditzazkegu?

Formula erraz bat eginuz gertura gaitezke, $IMC = \text{pisua} / (\text{altuera} \times \text{altuera})$ nahiz eta datu gehiago kontutan hartu behar diren, hala nola, genetika, gorputz konposizioa, kalori kontsumoa edo iharduera fisikoa, likido erretentzioa, e.a.

Gizentasun gradu desberdinak bereiz ditzakegu, arriskutsuenak $IMC > 35-40 \text{ Kg/m}^2$ koak izango dira. Anorexiaren kasuan, aldiz, $IMC < 18.5$ oso baxuak ikusten dira, 15 Kg/m^2 ingurukoak.

Anorexia eta bulimia gaixotasunen arazo haundi bat izkutuan gordetzen direla litzateke. Argala egotea modan dago baina non dago muga? Eta nola jakin dezakegu gure seme-alabak horrelako gaixotasun bat sufritzen ari diren?

Gaixotasunen ezaugarri batzuk

✓ Gorputz eta irudiarekiko gehiegizko kezka eta gizontzeari beldur ikaragarria diote bai anorexian

baita bulimian ere.

- ✓ Emakumezkoetan proportzio handiago batean ematen dira (%90-a).
- ✓ Haurtzarotik gaztarora pasatzen den adina kritikoa izan ohi da. Gorputz aldaketak ematen hasten dira eta neska hauek ez dute hori onartzen.
- ✓ Sendatu ezean heriotza eragiten du (anorexiak proportzio haundiagotan).
- ✓ Pertsona oso aktibak dira, kaloriak erretzeko grina dutenak

Anorexia eta bulimiaren arteko ezberdintasunak

- ✓ Anorexian barneratutako janari kopurua oso txikia da, 500 Kcal edo gutxiago, bulimian aldiz, janari "atrakoi" ondoren purgatu egiten dira (botaka, laxante eta diuretikoen erabilpena...).
- ✓ Anorexian elikadurari buruz jakintasun handia dago; zenbat kalori barneratzen dituzten eta zein konposizio duten janariak ondo dakite.
- ✓ Anorexiak perfekzionistak dira eta nota onak ateratzen dituzten horietakoak.
- ✓ Bulimikak ez orekatuagoak izaten dira orohar eta droga, sexu munduan errezago sar daitezke.

Arazoei aurre egitea gehiago kostatzen zaie eta agresiboagoak dira.

- ✓ Anorexian amenorrea ematen da (hileroko falta) baita azaleko ximurketa eta lehortzea, begietako ondoratzea eta ilearen erorketa ere.
- ✓ Bulimian bihotzerreak, hortzetako arazoak eta botakak eragindako molestiak ematen dira.

Zer egin susmoaren aurrean?

Lehenik eta behin, gaixotasunak eragindako ondorioetaz informatzea. Nahiz eta pertsona bakarra gaixo egon familia guztian eragin handia duen gaixotasuna da. Horretarako espezialistetara jo beharra dago, bai elikaduran eta bai psikologian aditua direnengana.

Sendatze prozesua oso luzea izan ohi da bi kasuetan, gainera oso ohikoa izaten da anorexiatik bulimiara pasatzea, beraz honek dezentente luza dezake prozesua.

Eta askotan gurasoen euren buruari errua botatzeko erraztasuna izan ohi dute, gurasoen banaketak, familiarreko komunikazio falta, eta abarregatik, baina zein gizartean bizi garen kontutan izan gabe.



Naroa Arrieta
Dietista
Kemen KOZ (Lazkao)



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



xetai
nafarroa etorbidea 1
20200 beasain gipuzkoa
www.xetai.net

XVII. Txiste eta Pasadizo Idatzien lehiaketaren irabazleak

Goierrri eta Urola Garaiko AEK-k, Ordiziako Udaleko EBPNren babesean antolatuta, XVII. Txiste eta Pasadizo Idatzien lehiaketak baditu saridunak jada. 100 txiste eta pasadizo inguru aurkeztu dira eta hauetatik 3 txiste onenek bina afariko saria jaso dute.

Herkules, Marilyn Monroe eta Notredameko konkorduna

Herkules, Marilyn Monroe eta Notre Dameko konkorduna, zeruko taberna batean zeuden hitz egiten eta bat-batean Herkulesek esan zuen:

– Ez dakit dakizuen baina munduko gizonik indartsuena naiz!

Marilynek honela erantzun zuen.

– Ni munduko emakumerik ederrena naiz!

Orduan Notre Dameko konkordunak esan zuen.

– Ze demontre! ba ni munduko gizonik itsusiena naiz!

Herkulesek kezkatu: Jaungoikoari galdetu behar diot ea munduko gizonik indartsuena izaten jarraitzen dudan.

Hala joan zen eta berehala itzuli zen.

– Jaungoikoak esan dit munduko gizonik indartsuena izaten jarraitzen du-



dala.

Hau entzutean Marilyn-ek ere Jaungoikoari galdetu behar ziola eta joan zen. Laster itzuli zen pozik.

– Jaungoikoak esan dit munduko emakumerik ederrena izaten jarraitzen dudala.

Hori ikustean Notre Dameko konkordunak berak ere Jaungoikoari ea munduko pertsonarik itsusiena izaten jarraitzen zuen galdetzerara joan zen eta laster zen bueltan erabat haserre.

– Esango al dit norbaitek zein ostia den Albako Dukesa?

Ordiziako euskaltegiko iluntzeko taldea

Zezenak

Senar-emazteak mendi zerran dabiltza paseoan eta jakin-minak jota abeltzainari galdetu diote:

– Horko zezen eder hori zurea al da?

– Bai horixe! 500 kilo pisatzen ditu eta egunean 5 estalketa egiten ditu.

– 5 estalketa? Entzun duzu,

laztana? –esaten dio emazteak senarrari.

– Beste horrek egunean 20 estalketa egiten ditu –jarraitzen du abeltzainak.

– 20 estalketa? Entzun duzu, laztana?

Senarrak, nazkatu, galdetzen dio abeltzainari:

– Baina 20 aldiz behi bera estaltzen al du?

– Ez jauna. 20 behi ezberdinekin egiten du.

Senarrak irribarrez begiratzen dio emazteari eta esaten dio:

– Entzun duzu, laztana?

Aitor Calvillo

Kolakao, ostia!

Josetxo mutikoari, goizean ikastolara joan aurretik, amak zer gosaldu nahi duen galdetu dio eta mutikoak:

– Kolakao, ostia!!

– Zer esan duzu? Hori al da hitz egiteko era?

Eta bi masaileko eman dizkio. Umea negar batean ari dela aita azaldu da:

– Zer du Josetxok?

– Ba, gosaltzeko zer nahi

duen galdetu diot eta Kolakao, ostia!! Ez dit ba erantzun ume mutur zikin honenek !!

Aitak hori entzun ondoren, umearengana joan eta beste bi belarrondoko eman dizkio:

– Tori, ikusiko duzu hurrena nola ez duzun berri horrela hitz egingo!!

Ume gaixoa, lehenaz gainera, aurpegiari heldu eta hor doa arrantzaka ikastolara eta aitona ikusi du:

– Zer du Josetxo gizajoak horrela negar egiteko?

– Zer duen? Ba gosaltzeko zer nahi duen galdetu diot eta kolakao, ostia!! erantzun dit.

– Hau da ume lotsagabea!! Berri ez horrelakorik esan gero amari eh!!

Eta aitona ere “zipli-zapla” bere partea eman dio umeari. Hurrengo goizean berriz galdetu dio amak Josetxori?

– Zer nahi duk gosaltzeko Josetxo?

– **Kolakao ez!** Ostia!

Joxe Antonio Mujika

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Udako ikastaroak

Udako matrikula zabalik: ekainaren 2tik 24ra bitartean



Maila guztiak, alfabetatze eta EGA:
ekainaren 30etik uztailaren 24ra arte

1. maila, 2. maila eta EGA – 3. mailako azterketa
prestatzeko: irailaren 1etik 26ra bitartean

40 orduko ikastaroa

Egizu euskaraz!
Nahi baduzu...
egingo duzu

Izena emateko:
BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA



www.udaleuskaltegiak.net

Loinazko San Martin plaza, Tel.: 943 02 81 00 Hel.elek.: zuzendaritza@beasain.net

M4

MATRIKULA IREKIA

DATAK **BATXILERGOA - Ekainak 30etik Uztailaren 4arte**
LANBIDE HEZIKETA - IZEN EMATEA - Ekainak 2tik 13ra

Batxilergoa	Lanbide Zikloak	
	Goi Mailako Zikloak	Ziklo Ertainak
<ul style="list-style-type: none">Giza eta Gizarte ZientziakNatura eta Osasun Zientziak	<ul style="list-style-type: none">Administrazioa eta FinantzakInformatika Sistemen AdministrazioaInformatika Aplikazioen GarapenaMerkataritza Kudeaketa eta MarketinaNazioarteko MerkataritzaIdazkaritza	<ul style="list-style-type: none">Administrazio-KudeaketaMerkataritzaSistema Informatikoen Ustiapen

Masterrak

- Aplikazio Informatikoen Garapenean Masterra

Ikasgaiak euskaraz, gazteleraz eta ingeleraz ematen dira

ku t x a | Lankidetzako Gizarte Ekintza

nazaretzentroa

Aldakonea, 36 · B° Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

Zeraingo Herri eskolak 25 urte beteko ditu irailean

Gipuzkoako Eskola txikien festa Zerainen



Ekainaren 8an, Gipuzkoako Eskola Txikien familia Zerainen elkartuko da, festa eta aldarrikapena uztartuz. Indarrak batuz, Eskola Txikien txikitasuna indartu nahi dute, Eskola Txikiak

herri eta auzo txikietako arima direla aldarrikatuz. Zeraingo Herri Eskola duela 25 urte sortu zen berriro, Zeraindartzea helburu hartuta. Herri oso baten apustuak, arrazoia eman diete zeraindarrei.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA



biok

zerbitzuak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala


Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnacka 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



Zeraingo Herri Eskolako ikasleek, irakasleek, ikasle ohiek, gurasoek, eta azken batean, herritar guztiek, lan egingo dute, igandean, ekainaren 8an, Ekainaren 8an, Gipuzkoako Eskola Txikien festan guztia ondo atera dadin. Zeraingo eskola Eskola Txikien koordinadoran sartuta dauden eskolatik txikiena da; bederatzi ikasle dauzka aurten. Gutxi izanagatik dena den, ondo moldatu dira, auzolanean, antolaketan esperientzia handia baitaude zeraindarrek. “15 guraso elkartzen gara eta gure artean aritu gara antolatzen. Hori bai, herritarren laguntza ere badugu. Lan asko. Azken urteko tentsioak. Balorazioak, ekainaren 8a pasatutakoa”, diote zeraindarrek.

Helburua ez da jai masibo bat egitea, Eskola Txikietako partaide guztiak elkartzea baizik. Festak lema bat du, urtez urte mantentzen dena: ‘Eskola Txikiak bizirik, herri txikiak eta auzoak bizirik’. “Herri txikiak ere bizirik gaudela, eta bizirik jarraitu nahi dugula. Eta azkenean, eskolak garrantzia handia daukala. Eskolarik gabe, arratsaldeetan ez litzateke entzuten ari garen ume hots hau entzungo”, diote zeraindarrek.

Bi gune

966 ikasle inguru dabilta Gipuzkoako 26 Eskola Txikietan. 700 ikasle etortzea aurreikusten da. Aurreikuspen honekin, antolatu dituzte goizean zehar antolatu dituzten jolasak. Goierrin lau Eskola Txiki daude: Zeraingo bera, Gabiriakoa, Olaberrikoa eta Itsasondo-koa.

Goizeko 10etan hasiko da festa. Bi gune izango dira herrian: pilotalekuaren inguruan eta plazaren inguruan. Karpa bana jarriko dituzte. Bi guneen artean, berri, parkea dagoen tarte horretan, puzgarriak izango dira.



Egitaraua

10:00etan: Sarrera eta ongi etorria umeekin plazan.

10:45etik 13:30era: Jokoak, Eskola Txikietako haurrentzat. Ekintza libreak: erakusketa, puzgarria, asto-busak, animaliak, kazetaritza tailerra, tirolata eta trikitixa. Museo, diaporama, kartzela eta meategiak bisitatzeko aukera ere izango da.

14:00etan: Bazkaria pilotalekuan. Haurren jaialdia.

16:00etatik 18:00etara: Erakusketa, puzgarriak, asto-busak, animaliak, kazetaritza tailerra, tiro-lata eta trikitixa. Bertako museoa eta diaporama, kartzela eta meategiak bisitatzeko aukera ere izango da.

16:30ean: Lekukoa pasatzea eta Pirritx eta Porrotx pailazoak.

18:00etan: Festaren amaiera.

Plazako karpan jarriko duten txosnan edariak eta ogitartekoak izango dira aukeran. Pilotalekuan, 400 lagunentzako bazkaria prestatuko dute. 14:00etan izango da. Arratsalde partean, Pirritx eta Porrotxen ikusizuna izango da. Eskola Txikien abestia ere abestu eta dantzatuko dute. Koreografia bereziren bat ere prestatu omen dute ikasleek eta gurasoek. Dena den, pailazoan aurretik, lekukoa pasatuko diete Berrobiko eskolakoei, datorren urteko festa antolatzeko.

Logoa eta kantua

‘Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik’ da Gipuzkoako Eskola Txikien

festaren leloa. Logoa haurren eta Joxe Mari Telleria margolariaren arteko elkarlanetik sortu da. Logoarekin, kolore ezberdinetako kamisetak atera dituzte.

Kantua ere badu ekainaren 8ko festak. “Urtero aldatu egiten zen kantua. Koordinakundetik abesti bat sortzea zen helburua. Abestia, Asteasuko festatik zetorren. Doinua, Joseba Tapia trikitilariak egin zuen eta letra, Bernardo Atxagak. Estribilloa, Ereñozuko, Haritz Zerainek egin zuen. Igeldoko festan moldatu egin zen zerbait eta guk egin duguna da, Atxagaren bi bertso horiek hartu, Zeraingo Ion Muñoak beste bi bertso gehiago gehitu dizkio, eta

Eskola Txikien abestia

Eskola txikiak, herri eta auzo, geroaren bila pausorik pauso.

Batzuetan hobe izatea txiki Daviden historia edozeinek daki.

Txepetxa bera ere txikietan txikiena. Polit askoa da Inbidi(a)rik ez du(e)na.

Eskola txikiak herrie ta auzo, geroaren bila pausorik pauso.

Baserriak ta kaleak denak loraturik, eskola txikiak badaude bizirik.

Denok elkar hartuta dezagun kantatu txikia ez dezaten inoiz ezkatutu.

Eskola txikiak herri eta auzo, geroaren bila pausorikan pauso.

Pirritx eta Porrotxekin grabatu. Denon abestia da”.

Aholkuak

Festarekin lotuta, batez ere bi aholku eman nahi izan dituzte zeraindarrek. Bata, trafikoari dagokiona. Autoak Idiazabalgo eta egurako Guardi industriagunean aparkatuko dira eta handik autobusak aterako dira Zeraingo joateko. Mutilo aldetik egingo du bidea.

Bigarren aholkua, goizean egingo diren jokoei buruzkoa da. Egun osoko festan edozein herritarrentzako baldin bada ere, goizeko jokoetan, Eskola Txikietako haurrek bakarrik parte har dezakete, aurretik izena emana daukatenek alegia.

Txikitasunaren handitasuna

Eskola Txikiak, neurritz txiki izateak eta adin askotako ikasleek gela berean ikasteak desberdintzen ditu. Gipuzkoan 26 Eskola Txiki daude. 7 eta 90 haur bitartean dituzte eskolek eta D ereduak dira. Zerainean kasuan adibidez, 9 haur dabilta. Zeraingo herri eskola duela 25 urte sortu zen, 8 umerekin. Mende laurden honetan, 44 ikasle ibili dira Zeraingo eskolan eta andereñoa, bat izan dute: Kontxi.

Eliz atariko "eskola xaharrea" ireki zuten gela duela 25 urte. Oso baliabide eta material gutxirekin hasi ere. Ainhua Makazaga zeraingarra, duela 25 urteko eskolan ibili zen ikaslerik zaharrena da. "Ni Seguran hasi nintzen eta Zeraingo eskola sortzeko, herrira itzuli nintzen. 2. eta 3. mailan egin nituen Zerainean. Zaharrena nintzen. Askotan, ama bezala. Nire adinekoa, bakarra nintzen. Gogoratzen naiz, beste umeek ez zidatelako uzten, aparteko gela batean bakar-bakarrik jarri nintzen, Euskal Herriko mapa egiten. Oroitzapen askorik ez daukat, baina dauzkadan guztiak, onak dira".

Kontxi andereñoak ere



Kontxi andereñoa:
"Ni Zeraina etorri nintzanean, plazan inor ez zen ikusten. Umeak eskoletatik etortzen zirenean autobusean, bakoitza bere etxe inguruan ibiltzen zen".

ondo gogoan ditu hasierako urteak. "Ni Zeraina etorri nintzanean, plazan inor ez zen ikusten. Umeak eskoletatik etortzen zirenean autobusean, bakoitza bere etxe inguruan ibiltzen zen. Umeen inguruan egiten diren ekinga guztiak, herriari asko ematen dio. Egia da, eskolan herrian ibili ez direnetatik, oso gutxi gelditu direla herrian. Herrian bizita, herriaren maitasuna sortzen da. Gela txikia zen, baina gero beste gela bat prestatu ziguten. Lurrean egurra jarri

ziguten eta gela asko libratzen zen. Eguraldi ona zegoenean, mahaiak ateratzen genituen kanpora. Oso baliabide gutxirekin hasi ginen, baina ondo moldatu ginen".

Aurrerapenak

Egunak eta urteak dena den ez dira alperrik pasa eta "gaur egungo Eskola Txikiak modernoak dira, kalitatezkoak eta aurrerakoiak metodologikoki. Eskola komunitate txiki bat da, ikaslea bere ikasketen protagonista izaten da eta besteekin hartu-emanen ikasten du: berak baino gehiago dakitenekin zein gutxiago dakitenekin. Irakasleak proposatukoaren gainean, haur bakoitzak bere mailan ikaste-prozesua eraikitzen du", diote Basarte Guraso Elkarte teko gurasoek. "Txikiak

handiarengandik asko ikasten du. Txikien galderei, handiak erantzuten diete. Askotan gainera, helduok esandakoari baino jaramon gehiago egiten diete gelako handienek esandakoari", gaineratu dute.

Eskola herrian bertan izateak haurren hezkuntzan eta herriko bizitzan du eragina. "Herri baten altxorra bertan bizi diren pertsonak dira eta horien artean zer esanik ez haurrak. Haurtzaroen eraikitzen dira jakintza, hezkuntza eta elkarbizitza zorientsu eta orekatua lortzeko oinarriak. Gure haurrak herrian nahi ditugu, gure hizkuntzan haziz eta heziz, herrikoak izateaz harro senti daitezten".

Herri txikiak eskolen kontra erabili izan diren argumentu nagusiak hezkuntza-kalitateari eta batez ere

Gure haurrak herrian nahi ditugu,
gure hizkuntzan haziz eta heziz,
herrikoak izateaz harro senti daitezten.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

ekonomiari lotuak izan dira, baina funtsean argudio ekonomikoak gailendu izan dira. “Globalizazioa munduaren jaun eta jabe den honetan, Eskola Txikiek inoiz baino zentzu handiagoa dute geure herrien eta herrietarren identitatea eraikitzekeo tresna garrantzitsu eta ezinbestekoak direlako”, diote zeraindarrek.

Irakasleek eta gurasoek Eskola Txikiei abantaila gehiago ikusten badizkiete ere, desabantailak ere aipatu dituzte. “Desabantailak baditu, baina abantailak gehiago. Tarteren batean umerik ez badago, salto handia egoten da. Adin berdineko lagunak ez izatea...”

Beste arazo bat, haur falta izaten da eta ondorioz eskolari eusteko, beti borrokan ibili beharra. “2006. urtean, bost ume jaio ziren. Asko izan zen. Aspaldian hainbesteko kopururik izan gabe zegoen. Normalean, bat edo bi jaiotzen dira. Inor jaio gabeko urteak ere badira, 2004a adibidez. Borroka pixka bat egin behar”, azpimarratu dute.

Ikasle gehien izan dituen urtean, 12 izan dira. Datorren ikasturtean ere 12 ikasle izango dira.

Irakasle eta ikasleez gain, gurasoak hortxe egoten dira. “Gurasoen parte-hartzerik gabe zaila izango da eskolaren proiektua aurrera ateratzea. Haur, irakasle eta gurasoen inguruan herri-dinamika interesgarriak sortzen dira; horiek dira eskola komunitatearen eragile nagusiak, baina ez bakarrik. Udalak oso paper garrantzitsua jokatzen du, eskola babestea, hain zuzen ere”, diote gurasoek. “Ume-



Basarte Guraso Elkarteko guraso diren **Aloña Elortza eta Enara Sodupe, Ainboa Makazaga lehenengo eskolako ikaslea eta Kontxi andereñoa**

21 urte festa ospatzen

21 urte pasatu dira Gipuzkoako Eskola Txikiek euren festa ospatzea erabaki zutenetik. “Orduan, Eskola txikiak oso ahul zeuden. Arazoei aurre egiteko eta egoera hobetzeko asmoz, irakasle talde batek elkarlana bultzatu zuen, Eskola txikien garrantzia aldarrikatuz eta irakasleen formazioa eta koordinazioa bultzatuz”, diote Zeraingo Basarte Guraso Elkartearen Enara Sodupe eta Aloña Elortzak. Lehenengo festa, Bidegoianen ospatu zen. Goierriin ere ospatu zen, Gabirian, 1992an. Orduetik gaur arte urtero ospatu izan da jaia, helburu garbi batekin: “Eskola Txikien txikitetasuna indartzea. Hau dena noski, euskaraz”.

1993an, beste urrats garrantzitsu bat egin zuten Eskola Txikiek: 11 herrietako guraso elkarteek Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinadora sortu zuten. Ondorengo urteetan gainerako herrietako guraso elkarteak koordinadoran sartzen joan ziren, 26 izan arte. Zeraini dagokionez, bertako gurasoak harremanetan hasi ziren koordinakundearekin, eta bi urte geroago, 1995ean, guraso elkarte sortu zen eta Koordinakundearen parte hartzen hasi ziren.

ak, gurasoak eta herriak elkartuz, ekintza asko egiten dira herrian. Gabonetan, inauterietan, Santa Esketan... Hori dena, umeak bizi du, eta herriko gauza bat bezala bizi du. Eta horrek iraun egiten du normalki”, gaineratu du Kontxik.

Udala hortxe izan du beti eskolak. “Kultur etxeko gela, Udalak prestatu zigun. Gelarik hoberena eman zigun”, gogoratu du andere-

ñoak. “Udalak eskolaren aldeko apustua egin du. Argia, berogailua, ura... Udalaren kontura izaten dira eta haurra eskolara ekartzen duten familiei, lehenengo urtean, 600 euro ematen dizkie Udalak, beti ere, eskola mantentzeko”, gaineratu dute zeraindarrek. Ainhoa Makazagak adierazi digunez, “koadrilan, adin ezberdinetako herritarrak ibiltzen dira. Eta hori eskolaren

emaitza da. Belaunaldi ezberdinen arteko lotura hori garrantzitsua da”.

Aloña Elortza eta Enara Sodupe amak pozik daude eskola txikiarekin. “Oso pozik gaude. Txikiak handiagoekin ibilita, asko ikasten dute. Giro polita dago. Arratsaldeetan adibidez, adin ezberdinetako zeraindarrak elkartzen gara, aitona dela, amona, gurasoak, osabak, izebak...”.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Zeraindartztea helburu

Andoni Alustiza zeraindarrak, duela 25 urte herri eskola berreskuratze lanean buru-belarri aritu zene-tariko bat da. Orduko esperientzia kontatu digu.

15 urtean Zerainen eskolarik gabe egon ondoren, nola eta zergatik ekin zenioten eskola sortzeari?

Zerain eskolarik gabe, 15 urtetan egon zen eta Zeraingo umeak, Zegamara eta Segurara joan ziren eskolara. Orduko gazteengan izugarritzko kezka sortu zen, herria desagertzen ari zelako. Izugarritzko beherakada zeukan. Hasiara batean, dena den, eskola ez zen kezka. Etxeak egitea eta gazteak bertan gelditzea baizik. Baina bazen belaunaldi hartan ere, eskolaren kezka. Udalera iritsitakoan, eskola berreskuratzearen kezka sortu zen. Eskolak bi funtzio bete behar zituela esaten genuen: hezkuntza bera eta Zeraindartztea.

Beste kezka bat ere bazegoen: nola hezi, hezkuntza egokia izango al zen hain ume gutxi eta maila ezberdinetakoak izango ziren eskolan... Orduko gurasoek nahiko balentria izan zuten; Seguran zebiltzan umeak berriz ere Zeraina ekarri zituztelako. Baina denok ados geundelako, hezkuntza aldetik zalantzatxo batzuk egonagatik, nik uste dut gehiago baloratu zutela, Zerainen hezitzea eta Zeraindartztea.

Herriaren aldeko apustua egin zen orduan.

Orain zerbitzu gehiago eta gertuago izatea baloratzen da baina orduan ez zen hori gehiena baloratzen zena; eskolarik gabe herria desagertzera zihoanaren kezka handiagoa zen. Eta horregatik sortu zen eskola.

Hezkuntzaren kalitate



mailak sortzen zuen kezka aipatu duzu. Kezka hori ere urteen poderioz uxatu duzue.

Bai, 25 urte, urte batzuk badira zalantza hori baztertzeko eta kasu honetan, Zeraingo eskolatik denetik pasatu da, leku guztietan bezala. Alde horretatik ere, oso gustura egoteko moduan gaude. Azkenean, Eskola Txikiakerantzun orekatua ematen du hezkuntza aldetik, eta kalitatezkoa.

Kalean, plazan, ume hostik ez zela entzuten... diote.

Hori da, hori zen kezka. Umeak hiru urterekin hasi eta Segurara joaten ziren eta Zerainen bertan beraien artean ez zeukaten loturarik. Koadrila ere kanpokoa egiten zuten; Zerainen bizi ez zirenez, heldutakoan, lotura gutxiago izango zuten herriarekin eta horrek

eramango zuen jendeak Zeraindik alde egitera.

25 urte hauek, arrazoia zeneukatela erakutsi dute, ezta?

Nik uste dut hori garbi-garbi gelditu dela eta geroztik gaur egungo Eskola Txiki mugimendua horren atzetik etorri da. Geroztik beste herri askok pauso berdina eman dituzte eta erabat frogatuta gelditzen da eskola txikien eta herri txikien iraupena lotuta doazela. Lortu daiteke herri batean etxeak egotea, baina herri bizi bat eskolarik gabe, zaila da.

Udalak beti babestu du eskola. Kultur etxeko gelarik onena eman zitzaion eskolari...

Hasieran hortik ere gogorra izan zen. Gaurko egunean, gela hartan hasi beharko balitz, ez dakit hasiko zen. Eliz atariko "eskola xaharra" deituriko hura ikusita

ere... baina besterik ez zegoen. Baina harrezkero eman diren pausoak, garrantzitsuak izan dira. Apaiz etxean, gelarik onena, eskolarentzako utzi zen. Beharbada gaur hutsunerik handiena hor daukagu, gaurkotuta ez daukagula, azpiegitura aldetik. Ordurako nahiz eta onena izan, gaur egunerako oso txikia gelditu da, eman behar diren zerbitzuak emateko.

Esan beharra dago, 25 urteren ondoren, eskola Udalarena dela, ez da Eusko Jaurlaritzarena, eskola gehienak diren bezala. Lokala bera, Udalarena da. Horrek esan nahi du Udalak zein garrantzia ematen dion eskolari eta zein ahalgin egiten duen eskolari eusteko.

Urte askotan borroka egin behar izan duzue eskolari eusteko, haur kopuru txikia delako. Datoren urtean, adibidez, 12 izango dira.

Beti dagoen iraupen borroka da. Beti arazoekin. Bi edo hiru urtez behin, behin eta berriz borroka egin behar. Administrazioan bada gogorra jendea esaten duena, ikasleko hainbeste irakaslearen gastua daukala, diruari bakarrik begiratzen diote... norbaitek beti esaten du ez dela egokia...

Hasiera hartan, Administrazio aldetik zailtasunik izan al zen?

Ez, ez. Ni ez naiz gogoratzin zailtasunetaz. Administrazioak esan zigun, gure gela bat jartzen baldin bagenuen, beraiek irakasle bat jarriko zutela. Administrazio aldetik, esperientzia berri bezala ikusi zen; orduan ere kezka gehiago zegoen euskalduntze giroarekin. Nik uste dut orain Administrazioa orduan baino funtzionarioagoa dela.

Denok ados geunden: hezkuntza aldetik zalantzatxo batzuk egonagatik, gehiago baloratu zen Zerainen hezte eta zeraindartztea.



Tomas Salazar mendizalea (bere izena daraman IV. Aizkorriko Bira jokatu da ekainaren 8an):

“Mendian, jakin egin behar da, igo ezin denean, buelta hartzen”

ruñearra jaiotzez, Beasain du azken ia 45 urteko bizilekua. Errotulu margolaria lanbidez, eta mendizalea zaletasunez. Emazteaz maitemintzeaz gain, Goierriaz eta bertako mendiez ere liluratu zen 25 urte zi-

tuela Beasaina, lanera etorri zenean. 2006. urtean Aizkorri Mendizale Elkarteko kideen omenaldia jaso zuen eta aurten lehenengo aldiz, Aizkorriko Birak, Tomas Salazar izen eta abizena izango du.



MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



Txikitako zaletasuna

Iruñekoa da jaiotzez eta lehenengo mendi ibilaldiak, inguruko mendietan egin zituen. “Umetatik hasi nintzen mendira joaten. San Kristobal mendia gertu zegoen. Bizikletan ere mugitzen ginen, Etxauriko mendi aldera. Trenez joaten ginen San Migelera edo San Donatora. Geroxeago, Jarana Peñan sartu nintzen, mendizale saila zuekan, eta mendi irteerak antolatzen zituen. Jarana mendizale elkartetik, autobusak jartzen zituzten. Garai hartan, zaletasun gutxiago zegoen. Gero eta gehiagora doa. Beasaina etorri nintzenez, ez zegoen urrutira joan beharrik, mendia bertan zegoen”, dio Tomas Salazarrek.

Lagun gehien eta onenak egiten diren lekua da mendia. Edozein lekutakoak gainera.

Laguntasun ikaragarria dago mendian.

Gero eta mendiko iraupen luzeko ibilaldi eta lasterketa gehiago antolatzen da. Mendizaletasuna ala lehiaketak daude modan?

Mendizaletasuna modan dago, ibilaldi neurtuetan ez baitago denborarik, ez dago saririk. Aizkorriko proban, bakoitzaren martxa libre da. 14 ordukoan adibidez, kontrol batera denbora baino lehenago iritsiz gero, itxaron arazi egiten diete. Beasainen ez.

Beasaindik Aizkorri urruti ikusten da.

Urruti ikusten da bai. Gero eta iraupen luzeko proba gehiago zeudenez eta gero eta indar gehiago hartzen ari zenez, guk ere bat antolatzea erabaki genuen. Murrumendi aldera egitea proposatu zuten batzuk. “Ez. Elkartearen izena Aizkorri da eta Aizkorriara egin behar da”, esan nuen nik. Oso luzea zela esaten zuten batzuk. Baina biderik motzenak erabili eta ta horrela egin genuen. 42 kilometrokoa atera ziren.

Ezker eskuin, Aizkorri eta Aralar daude Goierriin.

Aizkorri eta Aralar, zoragarriak dira. Goierri, mendizaletasunerako stadium zoragarria da. Horrelakorik ez dago edozein lekutan.

Aralar edo Aizkorri?

Ezingo nizuke esan, dena gustatzen zait. Mendi guztiek daukate bere txispa. Gailur bakoitzak bere grazia dauka. Gainera, mendiak daukan ona da, mendira zoazen bakoitzean, beti dena ezberdina dela. Klima, urtaroa, eguna... ezberdina da.

Urbasa ere zoragarria da. Ordu asko sartu ditut Urbasan. Aurrekoan, jubilatua, Urederrara eraman genituen. Jubilatuekin irteerak egiten ditugu. Ikastetxeekin ere bai.

Orain denbora besterik ez daukat, eta bideak aurkitzen aritzen naiz orain gus-

tura. Bakarrik asko joaten naiz mendira, batez ere bideak irekitzera noanean.

Mendian bakarrik ez omen da ba ibili behar.

Gaur egun telefono mugikorrek sikira badira.

Telefonorik ez dut erabiltzen. Ez zait gustatzen. GP-Serik ere ez. Burua erabili behar da. Behin GPSa zerman lagun batekin joan nintzen eta GPSearen arabera, laku bat pasatu behar genuen. Nik esan nion, ni ez nindoala handik. Atzetik etorri zen.

Orientazio ona daukazu orduan.


Beteranotasuna. Orientazioa beti eduki dut. Naturarekin orientatzen zara. Eguzkiarekin, dagoenean noski, zuhaitzen goroldioarekin, enborren arrastoak... Iparrorratza beti eramaten dut, baina non zauden ez badakizu, alperrik duzu iparrorratza.

Mendiak lagun onak, oso onak ematen dituela esaten da.

Lagun gehien eta onenak egiten diren lekua da mendia. Edozein lekutakoak gainera. Mendian, laguntasun ikaragarria dago. Jende guztiak jende guztiari laguntzen dio. Beti dago arraroren bat baina.

Ipar orratza beti eramango duzu motxilan. Beste-rik zer eramaten duzu?

Iparrorratza, ura, otartekoa, aiztoa, aterki txiki bat, arropa... Mendian eguraldia asko aldatzen da. Pirinioan adibidez, Elkarteko kanpaldi batean, Bisaurina joatekoak ginen. Eguraldi ederrarekin atera ginen aterpetetik. Itzulerakoan, trumoiak eta tximistak izan genituen. Pioletak bota genituen... Tximista bat gertuan erori zen. Ni konturatzen nintzen zerbait bazetorrela. Pareko mendi bateko puntan zegoen ganadua, jaisten hasi zen, eta eguraldi ona zegoen. Berehala azaldu zen laino potolo bat, gero bestea.



Mendira joan behar izateko, eguraldiari begira egongo zara orduan.

Ez, ez diot kasurik egiten, eguraldiari begira jarriz gero inoiz ez baizinateke aterako. Nire emaztea beti telebistari begira egoten da baina ni joan egiten naiz. Txubaskeroa eta aterki txikia beti eramaten ditut motxilan.

Ezbeharririk izan al duzu sekula mendian?

Lehen ausartagoa nintzen, ausartagoa nintzen orain, kontserbadoreagoa naiz. Ez dut sustorik izan. Istripuak ikusi ditut baina izan ez. Mendian, jakin egin behar da, igo ezin denean, buelta hartzen. Hori ez dakienak, horrek izango du istripua. Gero eta jende gehiago ibil-

tzen da mendian. Oinetako egokirik gabe asko. Behin gogoratzen naiz, Ordesa inguruan, Pelaez franjan. 'Mendizale oso adituentzat bakarrik', jartzen duen seinalea dago. Igo ginen eta itzulerakoan, frantziar emakume bat, kaleko zapatatxo batzuekin zihotan. Normala da hark istripuren bat edukitzea.

Askok diote, mendiak duen gauzarik onena, hamaiketakoa izaten dela.

Bakarrik noanean, ogitartekoaz gogoratu ere ez naiz egiten. Lagunekin noanean, mendiak duen politena horixe da: leku polit bat aurkitu eta hamaiketakoa egitea.

Oinetakoak aipatu dituzu, botak asko aldatuko ziren ezta?

Garai batean, lonazko botak erabiltzen genituen. Nahiko praktikoak ziren, baina euri asko eginez gero, mela-mela eginda gelditzen zinen. Gero larruzkoekin hasi ginen.

Pirionioetan izan zarela aipatu duzu. Alpeetan- edo izan al zara?

Alpeetara ez naiz joan. Egun baterako baino gehiago joan behar izaten zen eta nik beti nire kontura lan egin dut eta ezinezkoa zen. Estatu espainiarrean bai, gehiago ibili naiz: Picos de Europa, Soriako Pico de Rubión...

Igo gabe gelditu zaren mendirik ba al daukazu?

Ez, saiatu naizen mendi guztiak igo ditut; lehenengoan ez bada bigarrenagoan.

Murumendi mendi berezia da zuretzat. Liburuxka bat ere egina daukazu, orientazio plaka jarria daukazu...

1997an orientaziorako mahaia eta taula jarri genuen. Murumenditik ikusten diren mendi tontorrak azaltzen dira altuera, distantzia eta gainerako datuekin.

Taula hori abiapuntu hartuta, Esku-eskuan liburu bildumaren barruan, 'Murumendi' liburuxka argitaratu nuen, Murumenditik ikusten diren 100 mendi baino gehiagoren berezitasunak azalduz: nondik igotzen den, denborak, ohiturak, mitologiarekin dituen loturak, gurutzeak, elizak, iturriak eta abar adieraziz.

Margolaria

Ogibidez, margolaria izan da Tomas Salazar; errotuluak margotu izan ditu. Iruñean bizi zela, bi hilabeterako, Beasaina etorri zen lanera, 26 bat urte zituela. "Hemen ez zegoen eta. Emakume baten etxean lo egiten nuen eta Pako Fondan bazkaltzen nuen. Nire emaztea hango alaba zen eta berak zerbitzatzen zizkidan otorduak", gogoratu du Salazarrek. Emaztearen maitasunaz gain, Goierrik eta inguruak ere maitemindu zuen Tomas Salazar. Aralar, Aizkorri, Murumendi... "Autorik hartu beharrik gabe, berehala zaudete mendian. Zoragarria da".

Beasaina etorri eta berehala aurkitu zituen lagun mendizaleak. "Hainbeste mendirekin zaletasuna egon beharra dago hemen. Dena den, ez dut ulertzen, mendia gustatzen ez zaion jendea egotea. Txindokira igo ez den goierritar asko dago. Bai, ikaragarri. Gezurra iruditzen zait".

Tomas Salazar Beasaina etorri zenerako, bazen mendi elkarte Beasainen. "Lehenengo egoitza, Agirre tabernan izan zuen. Kirol elkarte zen baina gero mendi saila, banatu egin zen. Gaur egun dagoen lokala, ni hemen nengoela inauguratu zen". Harrezkeroztik, iganderoko planik ez du falta izan, inguruko mendietan gora eta behera ibiltzea. 70 urte ditu. Oraindik ere sasoiko dago. Orain gainera, behin erretiratuta, denbora gehiago dauka bere zaletasunari heltzeko.

Tomas Salazar IV. Aizkorriko Bira

IV. Aizkorriko Bira, ekainaren 8an izango da. Aurten izen eta abizenak jarri dizkiote Aizkorriko Birari: Tomas Salazar. 2006. urtean omenaldia egin ziotenean, Aizkorri elkartekoek adierazi zioten, hemendik aurrera, Tomas Salazar izena eramango zuela. Beasainen egiten den iraupen luzeko proba, bi urtean behin egiten da. "2002. urtean hasi zen Aizkorriko Bira. Laugarren edizioa izango da. Beasaindik atera, Ugartementitik Etxegaratera, Otzaurtera, Agiñabaso, San Adrian, Aizkorri, Arbelargo txabola, Andraitz, Zegamara eta Zeraindik barrena, Beasaina. Kaña dauka bai. Proba honek, beste proba batzuetarako entrenamendu bezala balio izaten du", zehaztu du Tomas Salazarrek.

Ez du parte hartuko beasaindar nafarrak. "Orain ez dut horrelako proba luzeetan parte hartzen, gaztetan bai, baina orain ez. Kontrol postu batean egongo naiz, Agiñabason".

Ezaugarriak

Aizkorriko Birak mendian ibilita egotea eskatzen badu ere, eta izena aurrez ematea komeni izaten bada ere, oraindik bada 42 kilometro egin nahi dituenarentzako aukera. Izen ematea, 10 eu-



Tomas Salazarrek zehaztutako ibilbidea. Ibilbidearen marrazkia ere Salazarrek egindakoa da. Marrazkilaria izanik, gustuko bi zaletasunak uztartu ditu.

roren truke izango da alde zurretik eginez gero, eta 12 euroren truke irteeran bertan eginda.

Parte hartzaile guztiek txarteletan azalduko diren kontrol-guneetatik pasatu beharko dute. Gune bakoitzean txartela zigitatu egingo da; horrela, proba guztia egin dela ziurtatu ahal izango da.

Irteera ordua, goizeko 6etan izango da, Aizkorri Mendizale Elkartearen egoitzatik.

Probaren iraupena 12 orduko ingurukoa izango dela aurreikusten dute antolatzaileek. Dena den, 14 orduko tartea egongo da proba bukatzeko.

"Hau mendi ibilaldia da, eta ez mendi lasterketa.

Hori dela eta, amaieran ez da inolako sailkapenik izango eta parte hartzaile guztiei oroigarri bana emango zaie".

Amaieran dutxak ere esku-eskura izango dira. Norbaitek aurreko egunean etortzea pentsatuko balu, Loinazpe ikastetxean lo egiteko tokia izango du, norberak zakua ekarrita.

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
 © 943 02 73 58
 Faxa: 943 02 79 39
 San Inazio, 5 BEASAIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

txekin
 www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
 Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
 Faxa: 943 16 15 58
 Domingo Unanue plaza, 5 behe
 ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Goierritarra

943 16 00 56
 goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza

943 16 00 56
 goierri@goierrikohitza.info

Berdeguneko neska futbolariak

Futbol-zelai handian Beasaingo, Lazkaoko eta Ordiziako 7 talde aritu dira aurtengo denboraldian

Orain arte, nesken artean futbol zelai handian futboleko jokatzeko ohitura handiegirik egon ez bada ere, pixkanaka-pixkanaka, berdeguneak hartzen ari dira neskek. Goierrin, aurtengo denboraldian, zazpi talde aritu dira lehian, kadete zein afizionatu mailan; futbol 11-n nahiz futbol -8an. Ordizian, afizionatu mailako eta kadete mailako Futbol-8ko talde bana daude. Lazkaon lau talde daude: afizionatu eta kadete mailako talde bana eta infantil mailan Futbol-8ko bi talde. Beasainen azkenik, kadete mailako talde bakarra dago.

Gipuzkoa mailan jokatzen dira txapelketak. Bi fasetan banatzen dira txapelketak. Lehenengo partiduetan, denak denon aurka jokatzen dute. Bigarren fasean, sailkapeneko lehenengo hamar taldeek, Txapeldunen Liga jokatzen dute eta gainerakoek, Gipuzkoako Kopa.

Emaitzak

Goierriko taldeen kasuan, emaitza onak lortu dituzte 2007-2008 denboraldian.

Afizionatu mailan, Kopa jokatu dute Ordiziako eta Lazkaoko. 4. eta 6. bukatu dute denboraldia.

Kadete mailan, Futbol-11n, Beasainek Txapeldunen Ligan 2. egin du eta Lazkaok 4.; **Futbol-8an**, berriz, Kopa jokatuta, 4. gelditu da.

Indantil mailan, Lazkaoko bi taldeek, Futbol-8an jokatzen dute. Lehenengo mailako infantilek, 3. postuan bukatu dute Kopa.

Guztiak ere pozik daude, futbolaren bidez, kirola egin eta ondo pasatzea baita helburua.

Beasain

Beasaingo kadete taldea duela hiru urte sortu zen. Lehenengo urtean, Futbol 8-an jokatu zuten eta hurrezkerotzik, Futbol-11-n dabiltza. Ainhoa Aramendi, Enara Arratibel eta Miren Arrese dira entrenatzaileak.

Aurtengo denboraldiarekin gustura daude entrenatzaileak, aurre-aurrean bukatu baitute denboraldia. Gainera, Nerea Murua, Uxue Larrañaga eta Nagore

Ormazabal jokalariek, Realekin entrenatzera joateko deia jaso dute. "Ondo jokatzen duten neskek, Realean edo Athleticen jokatzeko aukera hor dago eta ilusioa ere sortzen du horrek", diote beasaindarrek.

Astean bi entrenamendu izaten dituzte, eta larunbatetan, futbol partidua. "Denbora pasa ederra da, futbola gustatzen zaienez. Lau-bost urtetik hona, futbol taldeak saiatu dira nes-

ken taldeak sortzen eta nesken futbola bultzatzen. Beasainen, iaz ez zen lortu helduen mailako taldea sortzeko adina neska elkartzetik. Arazoa da, lehen Beasainen jokatzen zuten neska batzuk Lazkaon eta Ordizian jokatzen dutela. Neska taldeek daukaten arazoa, jokalaria falta da. Herri bakoitzean talde bana izateko adina jokalaria ez dago. Dena den, futboleko jokatu nahi duenez, urrutira joan gabe badago aukera eta hori ere ez dago gaizki. Beasainen, kadeteen mailako jokalariek jarraituz gero eta aurretik futboleko ibilitakoren batzuk elkartzen badira, aukera egongo litzateke. Beraz, dei berezia egin nahi genieke, futboleko jokatzeko gogoarekin gelditu diren neskei", dio Enara Arratibelek.

Beasainen taldeko entrenatzaileak, beraiek ere futboleko ibilitakoak dira, eta prest leudeke taldea osatzeko futboleko has-



Beasaingo kadeteak

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Ainhoa Aramendi, Enara Arratibel, Ane Dorronsoro, Ane Kamino, Aiora Sanpedro, Marta Blanco, Maite Conde, Miren Sarriegi, Nerea Murua eta Miren Arrese.

Behean: Maddi Larrañaga, Nagore Ormazabal, Maialen Azurmendi, Izaro Argaz, Maitane Ara, Leire Goia, Uxue Larrañaga, Ene Mujika eta Maialen Aiestaran.

Lazkaoko afizionatuak

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Ane Escalante, Eneritz Aizpuru, Ainhoa Rodriguez, Josune Cordero, Maddalen Cano, Naiara Carlos eta Ainara Mendoza.

Erdian: Iera Maiza, Amaia Gomez, Francisco Javier Nuñez (atezainen etrenatzailea), Pello Soto (entrenatzailea), Angel merino (entrenatzaile laguntzailea) eta Ane Urdangarin.

Behean: Leire Lopez de Arregi, Jennifer Calvo, Amaia Eskisabel, Enara Estala, Patri Ruiz de Gauna eta Ana Belen Bermejo.



teko ere. “Areto-futbolearen ibiltzen ginen gu, beste aukerarik ez zegoen eta. Gure garaian, ia herri guztietan zegoen areto-futboleko talderen bat eta oso ondo pasatzen genuen. Baina futbol zelai handian jokatzeko, ezberdina da”. Datu bat ere eman dute entrenatzaileek. “entrenatzaile neskari ere ez dago. Gipuzkoan, uste dut, talde bakarra edo bakaretakoa gara”.

Lazkao

Duela hiru urte hasi ziren Lazkaon ere, futbol-zelaiko nesken futbolarekin. Kadeteen taldea sortu zuten lehenengo; eta hurrengo urte-

an, afizionatu mailakoa. “Gu gauden Zuzendaritza batzorde honek, bosgarren urtea egitera goaz eta ikusten genuen, neskatoen aldetik, ez zegoela mugimendurik baina nahi bat bazegoela. Jokin Garmendia izan zen nesken taldearen sortzailea. Bera izan zen mundu hori mugitu zuena. Proiektu horri forma eman zitzaionean, kadete taldea sortu genuen eta hurrengo urtean ikusi genuen Afizionatu mailako taldea osatzeko aukera bazegoela. Goierri zehar ibili ginen neska bila, proiektua planteatuz. Gaur egun, ikusten dugu bere zailtasun guztiakin,

sendotzeko proiektu bat izan daitekeela”.

Lazkaon, aurrean, inoiz baino talde gehiago aritu dira: afizionatu eta kadete mailako talde bana, eta infantil mailan, Futbol-8ko bi talde. Azken bi talde hauek, Kirol Elkartearen eta San Benito Ikastolaren arteko elkarlanetik sortutakoak izan dira, harrobi lana egiteko helburuarekin. Gazteenak, Futbol-8an jokatu dute. “12 eta 13 urtekoak dira. Aurrean 13 urte dituztenak, datorren urtean, kadete mailan, Futbol 11n jokatzeko aukera dute”, adierazi digu Xabier Muruamendiak lazkaotarrak. “Ikastola-

rekin egindako akordio horrekin, ikusten dugu atzetik ere badatozela eta azken batean, atzetik baldin badatoz, goikoen sustapena hor dago. Eta badirudi, badatozela. Neskak animatzen dira eta oso gustura dabilta”, gaineratu du, azpimarratu du Muruamendiak.

Emaitza onak lortu dituzte lazkaotarrak. Muruamendiak egin du errepaso: “Afizionatu mailako taldeari kostatu egin zaio maila berriari neurria hartzea. Kadeteetan berriz, oso ondo ibili dira”. Aste Santuan Realak antolatutako Gipuzkoako txapelketan, irabazle izan ziren Lazkao-



Lazkao, futbol 8, 2. urteko infantilak

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Mirari Corchete, Izaro Insausti, Iñaki Insausti (entrenatzailea), Janire Lasa, Ainhoa Reboreda eta Eukene Aragon.

Behean: Lierni Lopez, Leire Gelbentzu, Ane Negueruela, Idoia Txurruka, Maddi Aldasoro eta Miren Bereziartu.



Lazkaoko kadeteak

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Naiara Aldasoro, Maitane Fernandez, Ainhitze Ruiz, Maria Apalategi eta Garazi Jauregi.

Erdian: Miren Lasa, Uxue Garmendia, Juan Carlos Fernandez (delegatua), Marcos Retamosa (entrenatzailea), Soraya Benegas eta Alexandra Egunez.

Behean: Edurne Urteaga, Kristina Tamarez, Maria Cano, Irati Arrieta Itsaso Estala eta Olatz Iago.

ko neska kadeteak. Azken albisteen arabera, Uxue Garmendiak Realeko entrenamenduetara joateko deia jaso du.

Dena den, "emaitzak beti bilatzen dituzu baina talde hauetan helburua ez da hori bakarrik: baizik eta taldea osatu eta gozatzea", gaineratu du lazkaotarrak.

Arazorik handiena askotan, Lazkaon ere, taldea osatzea izaten da. "11ko futbola egiten duzunean, denboraldia luzea egiten da eta 18-20kote bat behar duzu. Askotan 14-15 badauzkazu eta taldea ateratzera ausartzen zara eta lesioek-eta laguntzen ez badizue, asko-

tan nahiko justu ibiltzen zara. Baina printzipioz gustura gaude", adierazi du lazkaotarrak.

Ordizia

Ordizian, duela lau sortu zuten lehenengo emakumezkoen taldea. Gutxi iraun zuen talde hark. "Baina eskaria bazegoela ikusten genuen, eta berriz ere osatu egin genuen. Gure asmoa da, nesken futbola bultzatzea gero eta hobeto egituratuz", adierazi digu Jon Urdangarin ordiziarrak.

Jokalariak biltzea dute zailena. "Ordizian kirol federatu asko dago eta futbola inoiz ez da emakumeena

izan. Baina pixkanaka-pixkanaka ari dira gerturatzen, baina ez du ematen bultzada handiegirik dagoenik", dio Urdangarinek.

Denboraldia oso ondo joan da, "arlotu guztietan. Orain gozatzen ari gara. Hurrengo denboraldia planifikatzen datorren astetik aurrera hasiko gara. Banan-banan hitz egin beharko dugu jokalariekin, ea jarraitzeko asmorik ba ote daukaten".

Eskualdeko talde bakarra?

Hiru taldeetako ordezkariekin egonda, taldeak osatzeko duten arazoa, neska fal-

ta izanik, ondorengo galdera hau egin diegu: talde guztien arazoa jokalaria falta izanda, planteatu al duzue, eskualde mailako talde bakarra sortzea?

Ordiziako Jon Urdangarinen adierazi digunez, "eskualdeko proiektu bezala, mutilen infantil mailako taldeekin egin da saiakera bat. Hortik aurrera sakondu nahian joan gara, baina zaila da. Azken finean, herri bakoitzak bere izateko era dauka, bere ohiturak dauka, bere ekipoak nahi ditu... Zaila da. Erakundeen aldetik inplikazioa beharko litzateke, bestela, zaila da. Saiakerak egin ditugu, nes-

Lazkao, futbol 8, 1. urteko infantilak

Goiko lerroan, ezkerretik eskuinera: Itsaso Salgado, Mara Munduate, Maddalen Castejon, Andrea Sanz, Leire Otxoa eta Naroa Barandiaran.

Behean: Jonhatan Talavera (entrenatzailea), Nahia Aragon, Ainhoa Fernandez, Amaia Lasa, Ane Muruamendiaraz, Mirian Talavera eta Arkaitz Lopez (entrenatzaile laguntzailea).





Ordizia, afizionatuak

Entrenatzaileak: Mikel Muriel Feliz eta Beñat Sanchez Zabalo.

Jokalariak: Sara Agirre Armendariz, Iride Ardanaz Murua, Oihane Bidegain Bastarrika, Maitane Carrasco Garcia, Ane Catalan Mingo, Maitane-Corcuera Casado, Sara Elozegi Ruiz, Miren Eskitxabel Remiro, Ainhoa Esnaola Mendizabal, Maialen Etxeberria Bosque, Amaia Etxeberria Insausti, Ane Larrañaga Agirrezabala, Tamara Larrea Hernandez, Naroa Larrea Lopez, Leire Mateos Lozano, Maite Mendia Sorda, Marta Ortega Etxeberria, Noemi Sanchez Cupido, Natale Sanchez Gonzalez, Ane Urteaga Armendariz eta Maialen Zugasti Irizar.

ken futbolean ez, beste maila batean bai, eta ez zaigu ondo-ondo atera. Baina ados nago, horrela izan beharko lukeela. Eskualdeko plangintza bat egingo balitzateke, denek edukiko lukete lekua eta etekinak ere askoz ere handiagoak izango lirakeke”.

Beasaingo Enara Arratibelen ustez, “niri logikoena

hori irudituko litzaidake. Nik taldeen artean hitz egitea egoki ikusiko nuke. Baina nik uste dut klub bakoitzak bere taldea egiten saiatzen dela. Adibidez, Ordiziako taldekoek deitu dute eta neska batzuk Ordiziara joango dira eta beste batzuk Lazkaora. Harreman hobea balego, nik uste dut jokalarientzako ere hobea izango

litzatekeela”.

Lazkaoko Jokin Garmendiaren ustez, azkenik, oso egokia litzateke, klub bakoitzak bere interesak alde batera utzi eta neskegan pentsatuz, eskualde mailako talde bat sortzea, nazional mailan (Hego Euskal Herriko taldeen aurka) jokatzeko modukoa. “Horretarako, jokalaririk onene-

kin, halako selekzio txo bat osatu eta nazional mailara igotzeko aukera izango genuke. Maila oso ona dago Goierriko nesketan”.

Horrekin batera, talde bakoitzak, Gipuzkoa mailan, afizionatu eta kadete mailatan jokatzeko, bere taldea izatea proposatzen du Garmendiak, eskola eta harrobi lana eginez.

Ordizia, kadeteak

Jokalariak: Irune Agirre Maiz, Maddi Armendariz Txurruka, Jone Auzmendi Etxeberria, Maria Balluerca Alba, Maria De Juan Razkin, Maitane Garrido Albisu, Sara Insausti Gonzalez, Larrantz Larrarte Urdalleta, Maialen Otamendi Zurutuza, Olatz Rodriguez Cuadrado, Alazne Rubio Etxaniz eta Garazi Usabiaga Arteaga.



kutxa

LANA

eskaerak

Beasainen umeen zaintzan eta etxearen arduran eskarmentua duen pertsona behar da. 615758441

Beasaingo Mapfreak kudeatzaile komertziala behar du. Kurrikuluma, Urbialde I, enparantzako bulegoan uztea eskatzen da.

Lazkaoko denda baterako pertsona bat behar da. 8:00etatik 14:00etara deitu. 943885500.

Ileapaintzailea behar da Tolosaldeko ileapaindegi baterako. Lanaldi osoa eta kontratu mugagabea. Baldintza eta ordu-tegi onak. 616648255.

Zerbitzari euskalduna behar da egunerorako. Esperientziaduna. Kontratuarekin. 615745924.

Seguran, haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. 695734032.

eskaintzak

Neska gazteak, etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen lan egingo luke asteleheneretik ostiralera. 697969774.

Emakumeak garbiketa lanetan edo umeak edo adinduak zaintzen lan egingo luke. 638931148.

Adinekoak zaintzen, etxeko edo atariak garbitzen... lan egingo nuke. 09:00etatik 16:00etara deitu. 628217527.

Neskak, etxeko lanak egingo lituzke. Orduka edo egun osoz. 608815752.

GARAJEAK

salgai

Lazkaon, erdigunean, garaje itxia salgai. 658745378.

IBILGAILUAK

salgai

Citroen Xsara 1.9 TD salgai. 98koa. Egoera ona. 656795356.

BESTELAKOAK

salgai

Karabana salgai. 6 pertsona. Orioko kanpinean. 943086948 / 943086879

Kanpin karroa salgai. Egoera onean. 943187594 - 626689173

PABILIOIAK

errentan eman

Beasainen, 450 m²ko pabilioia alokatzen da. 670285995.

Lazkao. Pabilioia alokairuan, lbabe industriagunean, 336 m² + 168 m². 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

9 hilabetez erabilitako Jane markako haur aulki bikoitx konpletoa salgai. Egoera onean. 300 euro. 610047505

Bebe Confort markako haur aulkia salgai. Erdi berria. 943082537 - 676297910.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Familia arduratsua, erreferentziekin, alokairuan pisua hartuko luke Goierri aldean. 943088208 - 660966944.

Nafarroako neskak, pisua edo gela hartuko luke errentan, Goierri. 652065960.

Baserria hartuko genuke errentan, Goierri aldean. 635202146.

Beasain. Uztaila hasieratik, alokatzeko pisu bila dabil bikoite euskalduna. 659754939.

salgai

Ataun. Eraikuntza berria. 2 logelako pisua. Trastelekua. 194.391 euro. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Ataun. Etxebizitza berria, 2 eta 3 logela, garajearekin eta trastelekuarekin. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Beasain. Aukera ona. 2 logelako etxebizitza. Igogailuarekin. Bizitzen jartzeko. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Idiazabal. Eraikuntza berria. 2 logelako etxebizitza. Sukaldea, jantzia. 261.440 + Beza. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Erdigunean pisua salgai. Bi logela, egongela (su bujarekin), sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. Prezio interesgarria. Aukeran, garaje itxia etxe azpian. 658745378 - 6587453377.

Lazkao. Hirigoien kalean, 2 eta 3 logelako etxebizitza salgai. Igogailuarekin. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. San Jose auzoan, 60 eta 75 m²ko etxebizitza. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo. **Lazkao**. Elozegi kalean, erakuntza berriko duplexa salgai. Estrenatzeko. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Elozegi kalean, 2 logelako etxebizitza. Bizitzen jartzeko. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. San Prudentzio auzoan azken adosatua salgai. 4 logela, terraza eta garajea. Maiztean entregatzen da. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo.

Lazkao. Eraikuntza berria. 1, 2, 3 eta 4 logelakoak. Oro bione eta San Prudentzio auzoan. 943883739.

www.lamylazkao.com/inmo.

Ordizia. Aita Urdaneta kalean, 2 eta 3 logelakoak, berri-tuak eta argitsuak. 943883739. www.lamylazkao.com/inmo.

Ormaiztegi. 2 logela. Guztiz eraberritua. 943883739.


www.lamylazkao.com/inmo.

Zumarraga. Etxea salgai, Esteban Orbegozon. 943082537 - 676297910.



RENAULT LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



LEIAR **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Ordizia

Motorzaleen bilkura

Ekainaren 6tik 8ra, Goierriko Sugoi motordunen klubak antolatuta III. Motordun Bilkura ospatuko da Ordizian.

Ekainak 7, larunbata:

16:00etan: Motor-jokoak (kupel arrastea eta geldoen lasterketa), herri kirola eta zezen mekanikoa izango dira. **19:00etan:** 2, 3 eta 4 urteko umeentzat mozorro lehiaketa. Horrela, motordun gisa mozorrotuta joan ahal izango dute, euren motor eta guzti. Motorra plastikozko "correpassillos" deritzana izan behar du eta hau ere egokitu daiteke. Hoberenak kontutan hartuko dira. **20:00etatik 21:00etara** motordunek Ordizia eta Beasainen artean itzulia egingo dute. **21:00etan:** Afaria izango da Plaza Nagusian. **23:00etan:** Doako kontzertua Plaza Nagusian: Gene Cats taldea eta Jaime Urrutia. **02:30ean:** Mutil eta nesken ikuskizun erotikoa.

Ekainak 8, igandea:

9:00etan: Diana eta gosaria. **10:30ean:** Motordunen karabana Goierri zehar irtengo da. Zegaman geratuko da bertako Udalak eskainitako hamaiketako hartzeko. **14:00etan:** Bazkaria.

Poltsikoko ikuskizunak

Maiatzaren 30ean hasi zen Poltsikoko ikuskizunak kultur programara, Soraluzeko 'Ventos de Saudade' taldearekin eta Kimetz XIV. Literatura lehiaketaren sari-banaketarekin. Kafe-antzerkia, kafe-kontzertua eta antzeko neurri txikiko ikuskizunak eskaintzeko filosofiarekin jarraituz, aurtien hiru ikuskizun emango dira. Emanaldi guztiak Barrena Kultur Etxean, gaueko 10:15etan.

Hurrengo ekitaldia, ekainaren 6an izango da. Ahots-jazza, Karma Quintet taldearekin

Azken ekitaldia, ekainaren 13an izango da Mikel Andueza Hirukotearrekin.

Arama

Kirolari ateak zabalik eguna

Aramako Udalak, ekainaren 8an, Kirolaren Eguna dela aitzakiatzat hartuta, kirola ardatz izango duen eguna antolatu du. Helburua, herritarrek kirola egitera bultzatzea bat, kirolak osasunean duen garrantziaz informatzea izango da. Ondorengo ekintzak antolatu dituzte:

9:00etan, mendi Irteera: Aramako plazatik abiatuta, Altzaga alderako herri-bideak erabiliz, Abalias ingurura joan eta Baliarrain eta Altzagarate artean dagoen "San Juan Iturrira"-ko bidea osatuko dute. Bertan egingo dute hamaiketako. Ondoren, Altzaga aldetik barrena Aramara jaitsiko dira.

12:00etan, jubilatuentzako ibilaldi-paseoa: Plazatik abiatuta Ordiziako mugaraino ibilaldia egingo dute, oinezkoen bide zaharra erabiliz.

13:00etan, adinekoentzat hitzaldia: Carmen Somoza, Kirol Hezkuntzako irakaslearen eskutik, "Kirolak adinekoen osasunean dituen onurak" hitzaldi-erakustaldi praktikoa izango da.

14:00etan, Herri-bazkaria, Aramako Tabernan. Bertan izena emateko epea ekainaren 4an amaitzen da. Izena udaletxean edo tabernan eman ahal izango da.

16:00etan, herri-kirolak, haur eta gazteentzat.

Ondoren trikitilariak lagundurik erromeria izango da Aramako plazan.

Itsasondo

Itsasondo-Orio ibilaldia

Ekainaren 7an, goizeko 5etan, plazan, dago hitzordua jarria, Itsasondo-Orio ibilaldia egin nahi duenarentzat. Santa Marina, Santa Ageda, Zelatun, Iturriotz, Aiatik barrena, Orioraino iritsiko dira mendizaleak, zortzi bat ordu beranduago. Oriora iritxi ondoren bertako Errota Jattetxean dutxa hartu eta ondoren bazkaria izango da. Bueltarako, autoak izango dira. Ekainaren 6an amaituko da izena emateko epea.

IBAI ONDO

AROEZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrirra

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.

AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Beasain

Berriak 5 urte

Berria egunkaria sortu zela bost urte beteko dira ekainaren 21ean. Urteurrena ospatzeko, eskualdez eskualde, hainbat ekitaldi egiten ari dira eta Goierrikoa, ekainaren 10ean izango da, Beasaingo udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean. "Guztion artean sortutako egunkaria da Berria. Egindako guztia ezinezkoa izango litzateke zuen guztion (akziodun, harpidedun, erosle, gizarte eragile, erakundeetako ordezkari, publizitate bezero, euskaltzale...) laguntzarik gabe", diote Berria egunkariakoeak.

Garagardo festa

Ekainaren 5etik 8ra bitartean, 30 garagardo mota ezberdin probatzeko aukera izango da Beasaingo plaza azpian, BKL-ren eskutik. Arratsaldeko 6etatik gauerdia arte egongo da zabalik garagardo gunea. Edanaz gain, zer jana ere egongo da. Ostiralean eta larunbatean, berriak, kontzertu bana izango da. Ostiralean, gaueko 10etan, 'Cordura' eta 'Milkshake'; larunbatean, ordu berrean, 'Fridapipil' eta 'A Duras Penas'.

Legorreta

Zinemaz Blai 2008

Urtero bezala, Sustraietz Blai Kultur Elkarteak lanean ari da 2008ko jaialdia prestatzen. Aurten, berrikuntza bat baino gehiago dituzte. Bata, adibidez, datarena, urriazaroan egin beharrean, ekainaren 28an izango baita musika jaialdia. Bestea, herria da; aurten Legorretan egingo da. Eta azkenik, musikaz gain, zinema zikloa ere antolatu du Sustraietz Blai elkarteak. Legorretako herri zinemaz izango dira filma emanaldiak, ekaineko lau ostegunetan, gaueko 9etan. Jatorrizko bertsoan eskainiko dira filmak, azpitu-luekin. Sarrera dohainik izango da.

Ekainak 5, osteguna:

Eutsi! Alberto J. Gorritiberea (E.H. 2007) 90 min. Kepa eta Martin, txikitako lagun min txirinduzaleak, lan arazoak direla medio, aspaldiko adiskidetasuna kolokan ikustean, helburu bat izango dute komunean: euren protestak Frantziako Tour-era eramatea.

Ekainak 12, osteguna:

Gato negro. Gato blanco. Emir Kusturica (Fra-Ale-Ser. 1998) 130 min. Grga Pitic, aitajaun ijtoa eta zabortegi-handikia, eta Zarije, eraikuntza-lanen nagusi harroa, txikitako lagunak dira. Zarijeren semeak Dirua eskatuko dio Grga-ri gangster batekin lapurreta prestatzeko.

Ekainak 19, osteguna:

Media Luna. Bahman Ghobadi (Iran-Irak-Aus-Fra. 2006) 101 min. Mamo musikari ospetsu zaharrak Irakeko Kurdistanen jotzeko baimena eskuratu du. Bere lagun min Kako Irango Kurdistango hainbat herritan bizi diren Mamoren hamar seme musikariak jasotzeaz arduratuko da.

Ekainak 26, osteguna:

Transylvania. Tony Gatlif (Fra. 2006) 98 min. Zingarina Trantsilvaniara heldu da, Parisen galdutako maitearen bila. Marie-ren laguntzaz, herrialde xarmagarria ezagutuko du. Maite zuen gizonaren ezezkoaren ondoren, garrantzitsuagoa den zerbait aurkituko du...

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDA 2008

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak
Errekuperazioak eta ikasketa teknikak

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA, MEKANOGRAFIA

INGELERA IKASTARO TRINKOAK

BERRIA! FRANTSESA

MATRIKULA 2008-2009 IREKITA

Joan Iturralde, 5 solairuartera - BEASAIN - www.ikaskide.net
943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Ormaiztegi gaztetxoak 1975-76 ikasturtean

Mari Angeles Lobatok utzi digun argazkian Ormaiztegi San Andres ikastetxeko ikasleak ageri dira.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Elena Cardona, M^a Jesus Izagirre, M^a Jesus Mujika, Juani Lobato, Kizkitza Izagirre, Ana M^a Vila, Arantxa Erostarbe, Izaskun Urkiola eta Gloria Perez.

Bigarren ilaran: Valentina irakaslea, Irene Elizegi, Pello Iza, Inmaculada Alonso, M^a Fran Guerra, Inmaculada Galindo, Arantxa Eskisabel, Justa Liberal, Antonia Ballesteros eta Amaia Zaldúa.

Hirugarren ilaran: Jose Ramon Izagirre, Martin Irizar, Jose M^a Apaolaza, Vigen Lapizondo, Casimiro Fernandez, Pelaez, Jon Andoni Zabaleta eta Jose Angel Alonso.

Behoko ilaran: Benito Deba, Iñaki Galarraga, Victor Etxezarreta, Jose Angel Tomas, Celia Cardona, Juli Lobato eta Ana M^a Lobato.

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVHAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com

Olagi

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Sagardotegia

Karta

Jatetxea

Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia

Inplantologia

Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)

Iraupena 2000 ordu (2 ikasturte)

- Haurren mundura gerturatzeko.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
 - Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegiak, Ludotekak...
 - Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.



AURREMATRIKULA EPEA: Ekainaren 2tik 13ra

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



PRIUS



Toyota Prius 22.500 eurotik

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es